



**Aztarna germanikoa Euskal Herriko toponimia
historikoan**
Hector Iglesias

► **To cite this version:**

Hector Iglesias. Aztarna germanikoa Euskal Herriko toponimia historikoan. *Fontes Linguae Vasconvm stvdia et docvmenta*, Institución Príncipe de Viana, 2001, pp.317-335. <artxibo-00000108>

HAL Id: artxibo-00000108

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000108>

Submitted on 24 Apr 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Aztarna germanikoa Euskal Herriko toponimia historikoan

HECTOR IGLESIAS*

In omni re vincit imitationem veritas
CICERON

Hemendik goiti aipatuko den gaia onomastikari lotua izanen da batipat, eta bereziki Euskal Herriko toponomastika historikoak mendebaldeko Europako beste lurraldeetan agertzen denarekin dauzkan antzekotasun harrigarriei, eta nere partez “harrigarri” izenondoa erabiltzea ez da bakarrik, bixtan dena, oraintxet ezagutzera emaitera noan aipatu egiaztatze toponimiko horrek ekar litzakeen ondorio historikoengatik, besteak beste, bainan baita ere, eta hori litzateke eta zait dudarik gabe aipatu berria dudan egiaztatze hori baino askoz harrigarriago gerta dakidana, ez baita, iduriz eta oker ez banago, sekulan nehor, hau da, horrelako ikerketa toponimiko sakonei emanak izan diren edo ziren autore edo ikerlari guzien artean, gauza “ximple” edo “bakun” batzuetaz konturatu, azken autore hok, aipatutako kasu partikular honetan, hizkuntzalariak direlarik, zeren toponomastika, jakina denez, hein batean behintzat, linguistikaren adar bat baizik ez baita.

Adibide “bakun” horiek oro, behin baino gehiagotan ezinago “arrunt”-ak direnak, aipatu aintzin, aitortu beharra daukat ez nakikeela nihaurek erraiteko zergatik ez diren orai arte sekulan aipatuak izan, “ez-aipatze” hau ere, hein handi batean, bat baino gehiagori “misteriotsu” suerta dakigularik, ezen azken finean hemen aipatuko diren adibide toponimiko horietarik zenbaitzu hain garden, begi-bistako eta argiak dira (eta kasik “ezin ukatuzkoak” adierazpena gehi ginezakeelakoan daukat behin baino gehiagotan) non ezin-ezinezkoa bailitzaiguke bederen zenbaiten ez aipatzea.

* UMR 5478, Université de Bordeaux-III.

Has gaitezen berehala eta goazen harira:

Frantsesezko artikulu luze batean jadanik azpimarratua izan den bezala, Treviño-ko konderrian¹ ezin esplikatuzkoa den leku-izen zahar eta arraro bat, zeina gaurregungo euskal deitura den ere, aurki daiteke, hau da, ez euskarak ez latinerak, besteak beste, ezin dituzte, ez eta ere ezingo sekulan ene gustuko, neholaz ere leku-izen horrek dauzkakeen jatorria eta erran-nahia esplikatut.

Argote da leku-izen hori.

M^a Nieves Sánchez-en liburuan, Koldo Mitxelenak goraiatu zuen kalitate handiko obra bat, Treviño-ko leku-izen hori “ezin esplikatuzko”-tzat emaiten da, nahiz-eta Sánchez-ek berak orroitarazten duen zenbait autorek azalpen-entsegu “dudazko” bat egin nahi izan zutelat².

Nola M^a Nieves Sánchez ikerlaria autore serio, segur eta zuhurra baita, behartua da nahi-eta-ez hemen euskarak ez daukala segurki deus ikustekorik onartzera, ez eta urrundik ere. Alabainan bada, fantesiaz beterikako azalpen-entsegu guziak oro alde batera utzita, nehork ezin izan du behin ere erran nondik atera daitekeen toponimo arabar hau. Bainan, eta hori da gehienik harritzen nauena, aski dugu, oker ez banago, gutarteko edozeinek hamairu tomo dituen *Geografía General del Reino de Galicia* deitutako entziklopedia mardularen hartzea eta kontsultatzea A Coruña-ko probintzian *Argote* deritzan herrixka bat badagoela ikusteko. Bestalde, Portugaleko historia apur bat ezagutzen duen edozeinek jakinen du segurki nor zen XVIII. mendean bizi izan zen Jeronymo Contador de Argote jakintsu portugesa eta, gainera, gutarteko edozeinek Alemaniako Joseph Piel jakintsu germanistaren obra, zeina portugesez idatzia den, irakurtzen baldin badu aise ohartuko da ere badirela bai Portugalen bai Galizian herrixka batzu *Argonte* eta *Argonde* deritzatenak³.

¹ Iglesias, 1998b, § 40, p. 16: “*Treviño*: en Pays Basque, on trouve le comté de *Treviño*. Bien qu'enclavé dans la province d'Alava, il dépend d'un point de vue administratif de la province espagnole de Burgos. Le nom est issu, dit Julio Caro Baroja, du latin. Il est également porté par un village de La Corogne”. Asturias-ko mendietan bada izen bera daraman beste herrixka bat (ik. *Treviño*, Camaleño; Iglesias 1999: § 32, 137).

² Sánchez, 1985, p. 188: “*Argote*: lugar treviñés situado en el centro del Condado junto al río Ayuda. Figura en la Raja de San Millán, 1025, con el mismo nombre, *Argote*, *Argot* en la carta del Obispo Aznar de 1257 (Hergueta). *De Dargot* es apellido de origen toponímico en un documento de 1325 (E. Enciso *Catálogo*, pp. 75-79). Quizá pueda relacionarse con vasc. (*h*)arri, ‘piedra’ [...], aunque parece bastante dudoso”.

³ Iglesias, 1999, § 38, p. 139: “*Argote*: un village de La Corogne, comme nous l’avions déjà signalé, a pour nom *Argote*. La forme ancienne n’est pas connue. Un autre village galicien de La Corogne s’appelle *Argonte*, autrefois *in villa Argonti*, 955 (cartulaire de Sobrado) et deux villages portugais portent le même nom: l’un *Argonde* (Felgueiras, district de Porto) et *Argonte* (district d’Évora). Il s’agit dans les trois cas, indique Joseph M. Piel, de noms d’origine germanique. Et il en est très probablement de même pour la variante *Argote*. En Pays Basque, un lieu-dit alavais est appelé de nos jours *Argote* (Treviño), autrefois c’était le nom d’un village: *Argote*, 1025, *Argot*, 1257. Ce nom basque n’ayant jamais pu être expliqué à partir de la langue basque, il est extrêmement probable qu’il s’agit dès lors, à l’instar de son homonyme galicien, d’un nom d’origine germanique. En outre, le patronyme *Argote* pouvant être de nos jours porté par un Portugais (cf. l’érudit portugais du XVIII^e siècle Jeronymo Contador de Argote), un Galicien et un Basque de souche, il est par conséquent indispensable de faire appel à la généalogie si l’on veut connaître la véritable origine des individus ayant ce nom pour patronyme”.

Bestalde, germaniar onomastikan aditu guziak bat datoz: leku-izen eta deitura “galaiko-portuges” horiek izen germaniarrak dira jatorriz, hau da, germaniar antroponimoak direla. Eta egia baldin bada ikerketa onomastikotan betidanik duda-muda handiak izan direla, besteak beste gaiak ekar ditzakeen korapilatze historiko-linguistikoko guziengatik, eta oraino direla eta beti izango direla, erran daiteke hala ere, hein batean bederen, gai zenbaitetan datuak aspaldidanik ongi ezagunak direla eta askotan ia kasik segurtamen osoz; horietan sar daitezke antroponimia germaniarrari lotuak diren gai gehienak.

Orduan, oraintxet aipatu berria dugun errealitate onomastiko hau kontutan hartzen badugu eta, aldi berean, onartzen bada *Argote* “euskal izena” ez dela euskarazko hitz baten bitartez esplika daitekeen toponimo bat, orduan Arabako leku-izen horren “misterioa” bapatean desagertzen da. Behartuak izanen gara nahi-eta-ez Galiziako *Argote* toponimoa eta Euskal Herrikoa gauza bakar bat baizik ez direla onartzera, erran nahi baita toponimo germaniar arrunt bat besterik ez direla, alde batetik ez baitaiteke mementoko beste azalpen hobe, zehatz eta koherenteagorik ediren eta bestetik azalpen hori onartzekotan segida onomastiko koherente baten parean ginatkeelako, eta beraz segida horren egiaztatzeak berak hemen proposatzen den esplikatze berri honi halako indar bat kasik ezin ukatuzkoa demaiolakoan egon gaitzke.

Adibideekin jarraitu aintzin, nahi nituzke aipatu azalpen berri honek dakarzkigukeen ondorio historikoak zeren-eta, aditu gehienek ongi dakiten bezala, onomastika, zeinetan toponomastika deritzan adarra sartzen baita, daitekeen zientzia zailenatarik bat baita askotan arrazoin askorengatik, bainan batez ere ardurenean lotua baita historian zehar lurralde batek ezagutu dituen mota guzietako gertakari historikoei, hala nola, bai eta ere, gertakari soziologikoei zein politikoei.

Dakigun bezala, XIX. mendeko autore gehienek, bai Euskal Herrikoak bai kanpokoak ere, uste zuten, gutiz-gehienetan itsu-mandoka, euskal lurraldeak ez zirela sekulan Erromak menperatuak izan eta halatan “euskaldun zaka-rran” ustezko erresistentzia edo gogor egiteari buruzko fantesiaz bete amen-omenkako mitologia bat hedatu zen orotan. Orai historigileek orok onartzen dute gauzak dudarik gabe korapilatsuagoak izan ziratekeela.

Izan ere, “euskal erresistentzia”⁴ baten den gutieneko aztarnarik ez du sekulan nehork nihun ere kausitu ahal izan eta teoria hori, erresistentziarena,

⁴ Iglesias, 1999, p. 147, «Les Basques, en revanche, ne semblent pas avoir opposé de résistance à l'empire romain, ce qui a beaucoup intrigué les érudits. A aucun moment, ils n'interviennent dans ces guerres [cantabriques] puisqu'aucune source ne les mentionne. Pour expliquer ce fait extrêmement curieux, certains auteurs ont mis sur pied une théorie fort séduisante et très convaincante comme le rappelle Henri Etcheto: “Par contre ce que l'on sait c'est que le territoire vascon se trouve au I^{er} siècle av. J.-C., bien plus étendu qu'il ne l'apparaît au moment de l'arrivée des Romains [II^e siècle av. J.-C.] (...) Il y a donc eu une expansion vasconne qui n'a pu se réaliser qu'avec l'accord et même à l'instigation des Romains. La difficulté est de savoir quand et pourquoi Rome a favorisé ce peuple. Le fragment XCI de Tite-Live et la mention de Strabon ne laissent pas de doute: l'extension du territoire vascon aux rives de l'Ebre s'est produite au cours du II^e siècle av. J.-C., au détriment des Celtibères qui tenaient cette région auparavant. L'explication en est facile: dans sa lutte contre les Celtibères, Rome a dû bénéficier de la part des Vascons d'une bienveillante neutralité voire peut-être d'un appui (...). Les Romains, qui répugnent encore à ce moment là à une administration directe trop contraignante, préférèrent confier cette zone stratégique à un peuple qui ne représenterait pour eux aucun danger. C'est la fameuse théorie de ‘l'amitié romano-vasconne’».

askotan gertatzen ohi den bezala, gaineko mailetik peko-errekarat erori eta betirako hondatu zitzaigun. Beraz, gai hau aditu seriosen artean egunetik egunera gero eta ezagunagoa izanki, ez gara xehetasun zehatzegietan sartuko.

Horiek guziak hula edo hola, gehi ginezake ondoko urteetan horrelako zerbait ere Bisigodoekin gertatu dela. Teorikoki bederen, autore askok luzaz pentsatu zuten gogorki aurka egina zietela Bisigodoei Euskaldunek, hau da, garai hartako *Vascones* direlakoek. Bainan gauzak askoz ilunago eta konplexuagoak direla ohartu dira orai zenbaitzu. Juan José Larrea (Larrea 1998: 144) historigilearen tesiaren zenbait pasarteren gogoratzea aski izanen zaigu:

Ce n'est que sous le règne du dernier roi arien, Léovigild (571-586), que les Wisigoths parviennent à construire une monarchie stable et à récupérer le contrôle sur la plus grande partie du territoire péninsulaire. (...) A en juger d'après la fermeté avec laquelle les historiens ont affirmé que la Vasconie n'a jamais été maîtrisée par les Wisigoths dans ce siècle obscur, on espérerait que le poids des preuves en ce sens soit accablant. Il n'en est rien. Les informations disponibles sur la Vasconie sont aussi dérisoires que sur la plupart des autres régions péninsulaires. Et, ce qui est plus important, elles n'autorisent nullement pareille idée.

Laburbilduz, gaurregun ezin dugu neholaz ere baieztatu, iragan denboretan egin zitekeen bezala, euskal lurraldeak ez zituztela Bisigodoek sekulan menperatu, nahiz-eta, nik dakidan behintzat, eta erran gabe doa, erabat menperatuak izan zirela baieztatzea ere ezinezkoa zaigun behin baino gehiagotan. Egia erran, historigile guzien arabera, hemen ulergarriak eta argiak ez diren gertakari asko badira. Orduan, onartzen bada Bisigodoek nola edo hala Euskaldunak menperatu zituztela, edo bederen kostata “kontrolatu”, eta, daki-gula, Juan José Larrearen erranak sinestekotan, Euskal Herri honetan berean “ongi kontrolatu” gainera, pentsa daiteke, hori litzateke logikoena, euskal lexikoan agert litekeen ustezko germaniar eragin hori erakuts liezaguketen zenbait aztarna oraino badaudela.

Bainan hori ez da kasua. Badakigu euskararen lexikoan agertzen den aztarna germanikoa ez dela batere garrantzitsua. Orduan, gai horri buruzko adituen lan gehienak kontutan hartzen baldin baditugu, bortxatuak izanen gara nahi-eta-ez onartzera hemen kontra-errankorrak iduri dakizkigukeen eta argiak ez diren elementu batzuekin topo egiten dugula. Bainan, aipatzera nonan beste egiaztatze “ximple” hau orroitarazten badugu, ohartuko gara eskuen artean daukagun gaia hastapen batean pentsa zitekeen baino askozaz ere konplikatugo gertatzen zaigula.

Alabainan, orroitarazi behar dugu Penintsulako hizkuntza erromanikoe-tan ere (portugesa, galiziera, gaztelera, etabar., baita ere frantses hizkuntzan) aipatu aztarna germaniko hori lexikoan guti agertzen dela, nahiz-eta autore guzientzat herri germaniarrek lurralde horiek erabat menperatu zituztela dudaz kanpo dagoen.

Orduan fenomeno hori, euskal hizkuntzan dagoen aztarna lexikal-eskasiarena, ez dagokio bakarrik euskarari. Adituak ados daude hortan: herri germaniarrak (Frankoak, Bisigodoak, Sueboak, Burgondoak, etabar.), gutiengo bat osatzen zutenak bai Galian bai Penintsulan, ez zuten sekulan urteetan zehar kokatu zireneko mendebaldeko lurraldeetan beren ama-hizkuntzaren inposatzea lortu. Aldiz, lortu zuten zaukaten sistema onomastikoaren inposatzea “tria nomina” zeritzan sistema erromatar zaharra desagertaraziz eta hori

alde batetik Galiako lurraldeetan bainan bai eta ere Penintsulakoetan. Aldaketa onomastiko horren ondorioz, gure antroponimo germaniko horietarik batzu toponimoak bilakatu ziren gutiz-gehienetan, aski ongi jakina denez, eta arrazoin horrengatik agertzen dira izen germaniko horiek guziak Portugal, Espainia eta Galiziako toponimia historikoan.

Hala eta guztiz ere, nahiz-eta germaniar herri horiek orok gutiengo bat baizik ez zuten osatzen aipatu lurralde horietan, potere politikoa eta potere ekonomikoa kontrolatzen zituzten. Hortaz ez dago duda izpirik gaia sakonki eta seriooki landu duten aditu guzien artean. Horrek argi eta garbi esplikatzen du zergatik diren behin baino gehiagotan germaniar jatorrizkoak garai hartako *uillae* direlakoan izen gehienak Portugalen eta bai eta ere, besteak beste, Galizian.

Laburbilduz, toponimian dagoen aztarna germanikoak eta lexikoaren aztarnak ez dute kasu honetan zerikusirik.

Euskal Herrian gaur arte ginuen “tesia ofiziala” hau zen guti gorabehera: herri germaniarrek, izan zitezten Frankoak edo Bisigodoak, ezin izan zituzten behin ere Euskaldunak menperatu eta beraz beren poterea (politikoa eta ekonomikoa) inposatu Euskal Herrian. Bainan, eta erran bezala, egun ikerlari batzuek, aipatutako Juan José Larrea historigilea barne, ez dute ia ikusmolde hori osoki onartzen.

Orduan, hau da egin litekeen hausnarketarik bat: jakinez lurralde historiko batean agertzen den aztarna toponimikoak eta lurralde horri berari historikoki lotua den hizkuntzaren lexikoarenak ez dutela gehienetan, behintzat kopuruari dagokionez, deus ikustekorik elkarren artean, ez dirudi beraz “anti-metodologikoa”, hein baten bederen, euskal toponimia historikoan aztarna germaniko bat egon ahal izaita. Hau da, euskal lexikoan agertzen den “germanismo lexikal”-eza ezin ukatuzkoak, edo hobeki erran, gutitasunak ez du beharrez erran nahi ez dela posible Euskal Herriko toponimia historikoan leku-izen germanikoak aurki daitezten. Batak ez du zerikusirik bestearekin eta horren froga garden eta hoberena da, besteak beste, Portugalako kasua: portugez hizkuntzak “germanismo lexikal” gutiño dauzkala ez du nehork dudan ezarriko, ez eta ezartzen ahalko ere. Aldiz, germaniar jatorrizkoa den toponimia portugezaren ugaritasuna ohiz-kanpoko da. Batak ez dauka beraz deus ikustekorik bestearekin.

Zehaztasun historiko hauek guziak behar-beharrezkoak dira eta horrengatik ahalik eta hobekiena emanak izan dira. Bestalde, eta berriro hastapeneko “hari toponomiko”-ra joaitekotan, nere tesia egiterakoan, zeina Baionako inguruetakoa toponimia historikoari buruzkoa zen, ez nuen sekulan pentsatuko Portugal eta Galiziako lurralde “urrun” hok, eta hein handi batean bederen aski “ezezagunak” euskaltzaleontzat, toponomastikaz den bezenbatean bederen, Euskal Herriko leku-izenekin ezer ikustekorik ukan zezaketarik, eta hemendik aintzina aitortu beharra daukat klarki toponimia-antzekotasun “euskaldun-galaiko-portuges” bitxi horri halabeharrez ohartu nintzaionean, zinetan oxtion aipatu *Argote* galiziar leku-izenaren aipatzea adibide bat besterik ez baita, neretzat ustegabe handia izan zela. Eta hori bereziki arrazoin zehatz batengatik: ez nakien, hastean jadanik erran dudan bezala, nola esplika zitekeen antzekotasun toponomiko garden horiek lehenago ikusiak eta aipatuak izan ez zitezten, nahiz-eta bakarrik axaletik izan zedin. Batez ere daki-

gularik zenbatetaraino izan ziren famatuak eta jakintsuak gai horretan aditu Europako autore zenbaitzu, zaila zaigu zinez ulertzea.

Iduri du, hala ere, “ez-aipatze” hori esplikatu dezaketenez arrazoin batzu badiorela hala nola jadanik idatzia nuen *Lapurdum* aldizkarian argitaratu frantsesezko artikulu batean (Iglesias 1999: 123). Alabainan bada, behar-beharrezkoa zaigu jakitea, eta askotan iduritzen zait gutarteko gutixkok, hau da euskaltzaleen artean, hori dakigula –nihaurek orai dela bizpahiru urte ez nakiela aitortu beharra–, eta dakigularik, ez dela bederen gutiz-gehienetan aipatua, Galiziako lurraldeak berak 35.000 herrixka nunbait han badauzkala, erran nahi baitu lañoki Espainiako Estadoan, bere osotasunean harturik, kokatuak diren herri- eta herrixka-kojuruaren erdia baino gehiago Galizian agertzen dela, edo nahiago bada, Galiziako lurraldeak Espainiako Estado osoaren gainerateko lurraldeek baino leku-izen “historiko” (ñabardurak badu bere munta) gehiago badauzkala. Hori litzateke adibidez guti edo aski erraittea bezala Frantziako leku-izen historikoen erdia baino gehiago Normandian nolazpait metatuak liratekeela gaineratikoak Frantziako beste lurraldeetan orotan barna barreiatuak liratekeelarik. Hori ezin sinetsia iduriko litzaioke bat baino gehiagori –eta gainera, Galiziak 6000 parrochia dituela jakitearekin, are ezin sinetsiagoa.

Ezinago arraroa den bitxitasun horren esplikatzekotan (gauza arraragoarik zaila litzaioguke egia erran asmatzea) behar ginituzke nahi-eta-ez faktore historiko batzu aipatu, zeinek jakintsu batzuen arabera segurki beren erroak aintzinate urrun eta gaizki ezagun batean murgiltzen baitituzte (Bouhier 1979: II. tomoa), edo nahiago bada zuzenki proto-historiatik letozkigukeen faktore konplexu, korapilatsu eta zail batzu hemen aipatuko ez ditudanak (oixtian aipatutako frantsesezko artikuluan jadanik ikusiak izan zirenak). Galiziar ugaritasun toponimiko harrigarri honek baduke, ene iduriko, zerbait ikustekorik hastapenean aipatzen ginuenarekin, hau da, ohiz-kanpoko naharotasun horrek esplikatu dezakeela, hein handi batean bederen, zergatik ez diren orai arte sekulan antzekotasun “euskaldun-galaiko-portuges” horiek ikusiak izan eta hori segurki arrazoin batzuegatik.

Alde batetik, Galizian, Portugalen eta Espainian gai onomastiko horietan aditutako ikerlari guti izan dira beti eta dira oraino Euskal Herrian gertatzen denarekin konparatzen badugu. Hori zaila da ukatzea ikusiz zenbat diren gure euskal lurraldeetan gaindi mota guzietako ikerlari, aditu eta jakintsuak direnak, izan daitezkeen egiazkoak edo balizkoak, naharotasun hori berenez gauza txarra ez delarik. Laburbilduz, Portugal eta, besteak beste, Galiziako lurraldeei lotuak diren gai linguistiko horiek oro orai arte guti ikertu izanak eta lurralde horietan hemendik ikusten ahal dugun ezin ukatuzko ikerlari-eskasia horrek, hala nola ere behar bada naskiko jakingura-eskasia batek, hau da gure partetik, garen euskaltzaleon partetik, mendebaldeko lurralde horietako toponimia historikoaren ez hobeki ezagutzearen zergatiak esplikatu ditzaketelakoan daukat, hein batean bederen.

Erran bezala, egiten ari nintzen tesiarekin lotuak ziren ikerketa batzuek eta bidezko jakin-nahi batek halabeharrez galiziar toponimia historikoa (eta nerretzat, besteak beste, arrunt ezezaguna) kontutan hartuzera eramanez ninduten. *Argote* leku-izenaz aparte, jadanik aipatu duguna, Galizian *Beariz* deitzen ziren bi herrixka bazirela ohartu nintzen, hau da, *Santa María de Beariz* eta *San Martín de Beariz* deitutako herrixka ezezagunak edo, hobeki erran,

bigarren kasuan, parropia (hirugarren parropia bat aipa ginezake ere: *Santa Magdalena de Baariz*). Hori, aitortzekoa dut, biziki harrigarri gertatu zait zeren-eta, euskaltzale gehienek dakiketen bezala, Lapurdiko probintzian kokatua den Biarritz deitzen den hiri famatua iragan denboretan *Beari(t)z* edo *Be-arri(t)z* deitzen baitzen, leku-izen horren jatorria eta erran-nahia ezezagunak zirelarik.

Alabainan bada, Lapurdiko leku-izen ezinago famatu horri buruzko mota guzietako hipotesiak bilatuak eta ikertuak izan dira aspaldidanik. Bainan joan den mendean zehar proposatuak izan diren hipotesia guzien ororen artean, gure iduriko, hoherena edo frogagarriena da, duda izpirik gabe eta beste artikulu batean jadanik idatzi nuen bazala, Jean-Baptiste Orpustanek 1990-ean kaleratu zuena (Orpustan 1990: § 12, 27) eta hori arrazoin bakun batengatik: autore honek proposatutako hipotesiak euskal lege fonetiko historikoak eta orai arte ikerlariak dazaguzkigun leku-izen horren forma zaharrenak errespetatzen dituen hipotesia *bakarra* dugu.

Gogora dezagun ere, bestalde, Alfontso Irigoienek proposatua zuen hipotesiak (egia erran lan-hipotesia hori lehen aldikotz proposatu zuen autorea, oker ez banago, Eugène Goihenetxe Iparraldeko historigilea izan zela iruditzen zait, nahiz-eta nik, badauzkadan datuen arabera, ez nakikeen xuxen erraiteko Irigoienek Goihenetxeri hartu zionetz ala Goihenetxerena ezagutu gabe berak asmatua zuenetz) ez zuela adituek ezagututako toponimoaren forma zaharrena kontutan hartzen.

Zer nahi den, hemen aipatzen ari naizena jadanik nola edo hala aipatua izan da idatzi ditudan hiru artikulutan eta horrengatik ez naiz behin eta berriro luzeki xehetasun guzietan sartuko, zeinak irakurtzaileek, interesa ukaitekotan, oxtion aipatu frantsesezko artikulu horietan aise eta sakonki kontsultatzen ahalko dituzten.

Hala eta guztiz ere, eta erran bezala, 1990-ean kaleratu Jean-Baptiste Orpustanek hipotesia berria hain gardena zen euskal fonetika historikoaren ikuspondu batetik hartuta, non ez bainuen neholatan Galiziako toponimoekin behin-betiko lotura bat, ez eta balizkoa ere, egiten ahal, nahiz-eta leku-izen “galaiko-euskaldun” hok zaukaten antzekotasun harrigarria zinez aipatzekoa zen. Hala ere, adibide bakar baten aipatzea ez zen neholaz ere aski ezen, latinezko erranaldi famatuak dioen bezala: *testis unus, testis nullus*.

Bainan horren ondotik, beste hiru leku-izen antzeko, hemen ere halabeharrez aurkituak izan zirela aitortu beharra, ediren nituen bai Portugalen bai Espainian (erran nahi baita León-go probintzian), hau da: *Viariz* deitutako herrixka batzu.

Zer nahi den, hemen argia den gauza bakarra, eta hori gainera gaia ikeritu duten autore guzientzat ororentzat, hau da: leku-izen “galaiko-portuges-leones” horiek oro antroponimo germanikoak dira, eta egia baldin bada, hastapenean erran bezala, gai onomastiko horietan autore gehienak beti duda-muda handietan ibili direla, hemen *Viariz* / *Beariz* deitu herrixkek antroponimo germanikoak deramatatzela ia segurtamen osoz (besteak beste, gai horri lotuak diren ikerlari adituek dazaguzkiten leku-izen horien Erdi-Aroko forma zaharregatik) baieztatu daiteke goraki.

Gauzak hula edo hola izanki, aipatu berriak ditudan antzekotasun “galaiko-euskaldun” horiek guziak hortantxet segurki geldituko ziratekeen, ez banitu gero uste gabeko beste aurkikuntza batzu eginak, askoz ere harrigarria-

goak zinez, zeinek, konfirmatzekotan, euskal ikerketa onomastikoei bide berri batzu eta orai artino ezin somatuzkoak zitzaizkigunak, ez eta urrundik ere, idekitzen ahalko bailizkiekete.

Izan ere, gero zehatz-mehatz aipatuko diren aurkitze horien guzieren artean aurkikunde harrigarri bat egina izan zen, noiz eta ere Galiziako “ezin bukatuzko” herri, herrixka eta leku-izendegian *Ustariz* deitu Lugoko leku-izen bat bapatean agertu baitzitzaidan. Hori da, dudarik batere gabe, nik orai arte egin ditudan aurkikuntza baldigarrienerarik bat, zeinak, besteak beste, oxition aipatutako *Beariz* / *Bear(r)i(t)z* toponimoen antzekotasun “galaiko-lapurtar” bitxi horri buruz ukaiten ahal nituen duda-muda guziak desagertarazi zizkidan eta zeinak, aldi berean, Euskal Herriko leku-izen historiko eta “ilun” batzuek askotan ekartzen dituzten arazo linguistikoko korapilatsuei irtenbide “errealista” bat segurkiro aurkitzen lagunduko gaituen.

Hemen ere, hau da Lugoko *Ustariz* deritzan lekuari dagokionean, segur-tamen baten parean gaudela ez da den mendreneko dudarik (eta ez dugu sekulan aski errepikatuko onomastika-gai hauetan orotan betidanik segur-tamen guti izan direla). Guztiarekin ere, Portugal eta Galiziako toponimia iker-tu duten aditu germanista guziek argi eta garbi baieztatu lezakete, Lugoko *Ustariz* hori aurkeztuko baginie, leku-izen lugoar hau antroponimo germaniko arrunt bat besterik ez dela.

Jarraitu baino lehen, dugun erran zerbait leku-izen galiziar zenbaiten azentuazione-arauei buruz: Galizian oso hedatua den *-riz* bururatzeaz bukatzen diren leku-izen galiziarrek azkenengo silabaren azentuatzeke joera orokortua daukate. Zenbait adibidek fenomeno hori argi eta garbi erakusten dute: Espainiarrek Lapurdiko *Ustaritz* euskal toponimoa entzuterakoan⁵ *Ustáriz* ahoskatuko dute eta, azken toponimo honen moduan, *Biarritz* leku-izena ere *Biárriz* bilakatuko da. Izan ere, Espainiar bat Galiziara joaiten bada eta hango *Ustariz* leku-izena ikusten baldin badu, automatikoki azkenaurreko silaban azentuatuko du bertakoen harridura segurki eraginez.

Dugun berriro erran, Lugoko leku-izen historiko hori ikertua luketen ikerlari aditueta den bezenbatean, hau da, ikusi ahal izan balute, orok segurki bururapen borobil hau ateratuko zuketen, hau da, Galiziako *Ustariz* leku-izena *Ostericus* delako antroponimo germaniko batetik, zeina bestalde Erdi-Aroko dokumento batzuetan behin baino gehiagotan agertzen den, dator-kigula edo, nahiago bada, iragan denboretan izan zen **uilla Osterici* deitutako Erdi-Aroko bas-herriko eremu batetik datorrela ondoko aldaketa fonetiko hauen bitartez: **Osterici* > *Osteriz* (izartxorik gabe) > **Ostariz* > *Ustariz* / *Ustaritz*.

Eta hemendik goiti, atera daitezkeen ondorio guziak bata besteen ondolik jarraikiak ditugu eta gainera, neurri handi batean, ondorio harrigarriak dira, nerretzat bederen arrazoin hauengatik batez ere: izan ere, euskaltzaleek dakiketen bezala, badugu Nafarroan *Osteritz* deitu leku-izen zaharra (bertakoez espainieraz *Ostériz* ahoskatzen omen dutelarik), zeina orai arte “ezin es-

⁵ Euskaraz *Uztaritze* aldaera, denek dakigun bezala, ez da adituak dazaguten aldaera zaharrena eta gauza bera gertatzen da ere, ikerlari adituak dakiten bezala, *Hazparne* aldaera “berreuskaldundu”-arekin, *Hasparren* aldaera “ofiziala”, azken finean, ezagutzen dugun forma zaharrena eta, dudarik gabe, “euskaldun”-ena izanki.

plikatuzko”-tzat jotzen zen. Hemendik aintzina, toponimo hori antroponimo germaniko ximple bat baizik ez dela zaila izanzen zaigu zinez ukatzea.

Halaber, Patxi Salaberri Zaratiegik (Salaberri 1994: 126) aipatzen duen Nafarroako *Ustaize* toponimo ezinago interesgarria, zeina autore honen arabera *Ustés* leku-izenaren euskal aldaera herrikoia⁶ baizik ez litzatekeen, kontutan hartzen badugu, orduan Nafarroako *Ustaize* leku-izena Lugon eta Lapurdin agertzen den *Ustari(t)z* toponimoaren bigarren mailako aldaera fonetiko bakun baten ondorioa besterik ez delakoan daukat, ondoko aldaketa fonetika arrunt hau ginukeelarik: *Ustari(t)z* > *Usta(r)iz* > *Ustaize*, hau da, *-e* paragogiko bat erantsita — hemen bestalde interbokalikoa den *-r-* dardarkari bakunaren erorketaren ondorioz sortzen den forma bat besterik ez ginuke *Ustaize* aldaera hori, euskara mintzatuan erorketa-fenomeno hori aski arrunta delarik.

Gainera, dardarkari bakunaren ustezko erorketa hau ondoko orrialdeetan berriro ikusiko dugun fonomeno garrantzitsua da hemen proposatzen den lan-hipotesia berriarentzat (ik. §§ 14, 15).

Laburzki emanez, ez badugu onartzen hemen aipatzen ari garen *-riz* bururatzeaz bukatzen diren euskal leku-izen historiko hauek (erran nahi baita alde batetik *Ustari(t)z* / *Osteri(t)z* eta beste batetik *Beariz* / *Bear(r)i(t)z* → *Biarritz*) antroponimo germanikoak direnik, zeinak bestalde Portugalen eta Galiziako probintzietan ere ediren daitezkeen, orduan, gure iduriko, ez da beste aterabiderik: edo “euskal” leku-izen horiek “ezin esplikatuzko”-ak dira bai eta ere beti izango ezen, nik dakidala, nehork ezin izan ditu sekulan esplikatu edo, aldiz, hemen proposatzen den eskema teoriko berri honen bitartez segida onomastiko koherente eta batez ere errealista baten parean gauden, bai metodologiaren aldetik, bai azterketa linguistikoaren aldetik eta gainera, hori guti balitz bezala, mendebaldeko Europako lurralde zenbaitetan, batiptat Portugalen eta Galizian, kausi daitezkeen ber-segida onomastiko batekin.

Hemendik aintzina euskal leku-izen historiko batzu aipatuko ditut, zeinak, nere gustuko bederen, antroponimo germanikoak diren edo izan daitezkeen, kasu zenbaitetan hori ia segurtamen osoz baieztatu daitezkeelarik. Beste batzuetan, aldiz, jatorri germanikoa ez daiteke osoki segurtatua izan, nahiz-eta hori iduriz hipotesia hoberena izan, beste bat frogagarri eta hobeargorik kausitzen ahal ez dugun artean.

Orai aipatzera noan toponimoei dagokienean, zenbait adibide baizik ez ditut mementoko emanen beste batzu gerorako utziz. Bestalde eta idazkiari pizutasunaren kentzeko, Erdi-Aroko formak aipatuak izanen dira bakarrik ezin-ezinbestekoak izanen direlarik.

Halaber, hasi baino aurretik, entzute handiko autore bik idatzitako premia biziko obra mardulak behar ditugu xehe-xeheki eta atsolutuki aipatu, oroz gaintetik onomastika-gaietan adituak diren ikerlarientzat ororentzat daukaten garrantzia handiarengatik, nahiz-eta obra horiek ez diren oso ezagunak euskaltzaleon artean.

a) Lehen obra da Joseph Piel alemaniarrena: *Os nomes germânicos na toponimia portuguesa* (Lisboa, 1937 eta 1945).

⁶ Edo, hobeki erran, *Ustés* leku-izen nafartarra *Ustaize* ahozko forma herrikoia baten aldaera erromanikoa baizik ez litzakete; zer nahi den, eta beti autore honen arabera hori dudaz kanpo da.

b) Bigarrena dugu Marie-Thérèse Morlet CNRS-ko ikerlariarena, zeina Euskal Herrian zorigaitzez guti ezaguna den (bai autorea bixtan da hala nola bai eta ere idatzi duen obra), nahiz-eta Alfontso Irigoienek bere lanetarik batean guti edo aski aipatzen duen: *Les noms de personne sur le territoire de l'ancienne Gaule du VI^e au XI^e siècle. I. – Les noms issus du germanique continental et les créations gallo-germaniques* (CNRS, 1971-72).

ZENBAIT ADIBIDE

1. **Aderitz** (esp. **Adériz**, Ezkabarte, Iruña): Ez da den gutieneko dudarik. Nafarroako leku-izen hau biziki ongi dokumentatua den ADERICUS delako antroponimo germaniko batetik datorkigu (Iglesias 1998a: 284, Morlet 1971: 14).
2. **Aiziritz** (fr. **Aïcirits**, Nafarroa Beherea, *Ayxiritz*, 1316, *Aysiriz*, 1350): Jean-Baptiste Orpustanek zehazten du leku-izen hau lehen-lehenik tokiko jatorrizko jauretzea edo jaurgoarena segurki izan zatekeela (“la Salle d’Aïcirits, dite Salha”, Orpustan 1990: § 55, 56). Toponimoaren aztertzea ezinago korapilatsua izanki, posible zaigu pentsatzea, nahiz-eta hipotetikoa izan, antroponimo germaniko bat besterik ez dela. Alabainan bada, *AIZIRICUS delako antroponimoa ez bada dokumentatua, aldiz osa lezaketen bi elementuak bai: 1. AG- elementuaz osatutako izenen hipokoristikoek AIZI / AIZO / AIZA / AICE aldaerak ezagutzen dituzte (ik. AIZIVELLA, AICELINA, AIZO, AIZA, AYSO, AAZO antroponimo germanikoak, Morlet 1971: 22); 2. -RICUS > AIZI- + -RICUS = *AIZIRICUS: *uilla Aizirici > Aiziri(t)z. Hemen, teoria mailan bederen, ez da den gutieneko arazorik. Bestalde, ene iduriko, ongi dokumentatua den AIZO delako antroponimo germaniko horrek Nafarroako **Aitzoain** (esp. **Aizoáin**, Antsoain) leku-izena ongi esplika lezakeelakoan daukat.
3. **Alderitz** (esp. **Aldériz** edo beharbada **Alderiz**, Ezkabarteko ibarrean kokatu jauretzea Altadill-en arabera, Iglesias 1998b: § 1, 4); **Alderiz** (Monsão, Viana do Castelo, Portugal); **Aldriz** (Feira, Aveiro, Portugal); **Aldariz** (Pontevedra, Galizia); **Alderiz** (A Koruña, Galizia); **Alderís** (A Koruña, Galizia): Ez da den mendreneko duda izpirik, ez eta urrundik ere. Nafarroako leku-izena eta “galaiko-portuges”-ak ongi dokumentatua den ALDERICUS delako antroponimo germaniko batetik datozkigu (Iglesias 1998b: § 1, 4, Morlet 1971: 31).
4. **Antxoritz** (esp. **Anchóriz**, *Ançoriçe*, 1049, Esteribar, Iruña); **Ançariz** (Braga, Portugal); **Anseriz** (1. Braga; 2. Vila Nova de Famalicão, Braga; 3. Arganil, Coimbra); **Ansariz de Enriba** (Ourense, Galizia); **Ansariz de Abaixo** (Ourense, Galizia); seguruenik **Arsoritz** (Erdi-Aroko jauretzea, *arçorritz*, 1264, *arssoritz*, 1268, *lospitau darssoritz*, 1366, Zabalza, Nafarroa Beherea; Orpustan 2000: 395): Portugal, Galizia eta Nafarroako leku-izen historiko hauek ongi dokumentatuak diren ANSERICUS eta ANSURICUS direlako antroponimo germanikoetarik datoz (Morlet 1971: 39), jakinez ANS- delako erro gotikoak aldaera batzu dituela, hau da, ANSE- / ANSO- / ANSA hala nola Galiziako leku-izen batzuek argi eta garbi frogatzen duten (Piel 1937: §§ 54, 66; 30, 32; Morlet 1971: 38): **Anso-rey**, **Anso-ar**, **Ansa-monde**, **Ansi-monde**, etabar.

5. **Aralde** (Pontevedra, Galizia); **Aralde** (Lugo, Galizia); **Aralde(co)** (*Lope d'*, XIII. mendean, Nafarroa); **Arhalde** (Uhartre-Garaziko jauretxea, Nafarroa Beherea, *Arhalde*, 1306, *Arhalde*, 1366; ik. Orpustan 2000: 379); **Aralde** edo **Aralz** (**Monjolose-Ainhiza**, fr. **Ainhice-Mongelos**, Nafarroa Beherea; ik. Orpustan 2000: 391); beharbada **Ralde** (1. Vila Verde, Braga; 2. Póvoa de Lanhoso, Braga, Portugal): dudaz kanpo dago Galiziakoek ez dutela deus ikustekorik euskararekin (Iglesias 1999: § 33, 138). Portugalekoa antroponimo germaniko bat da (Piel 1945: § 1066, 234). Eta hori litzateke, nere iduriko bederen, hipotesia errealista eta logikoena Euskal Herrikoentzat ere (-ALDE / ALD(E)- elementu gotikoari dagokionean, ik. Morlet 1971: 30; Piel 1945: 1066, 234, bai eta ere, besteak beste, Portugaleko leku-izen hauek: **Ramalde**, **Moalde**, **Baralde**, **Insalde**, **Malde**, etabar).
6. **Argote** (Treviño); **Argote** (A Koruña, Galizia); **Argonte** (A Koruña, Galizia, *in villa Argonti*, 955); **Argonde** (Quinta do, Felgueiras, Porto, Portugal); **Argonte** (Évora, Portugal): jadanik aipatuak izan diren toponimo hauetaz den bezenbategan, ezin da segurtatu *Argote* / *Argonde* direlakoak eta *Argote* deritzatenak gauza bera direnik. Aldiz ez da den gutieneko dudarik Galiziako *Argote* delakoak eta Euskal Herrikoak daukaten antzekotasunari dagokionean: *Argote* horiek gauza bera dira. Bi posibilitate: edo *Argonde* / *-te* delako forma batetik datoz (sudurkariaren galtze baten birtartez, zeina teorikoki posible eta beste leku-izenetan dokumentatua den: *-nd-* > *-d-*), edo dokumentatua den ARGODUS delako antroponimo germaniko batetik datozkigu (Morlet 1971: 42), ondoko bilakaera hau, besteak beste, posible ginukeelarik: **uilla Argodi* > **Argod* > *Argot*, 1257 > *Argote*, hau da *-e* paragogiko batekin edo, bestenaz, beste aldaketa honen bidez: **uilla Argodi* > **uilla Argoti* > *Argote*, hau da, *-t-* / *-d-* aldizkatzearekin hala nola frogatzen digun aipatutako *Argonde* / *Argonte* pareak. Bestalde, eta jadanik idatzia izan den bezala (frantsesez), *Argote* deritzan pertsona bat jatorrizko Galiziarra edo Portugesa izan daiteke. Beraz beti ezinbestekoa izanen zaigu ikerketa genealogiko baten egitea jakiteko nongoa den deitura hori deraman pertsona bat.
7. **Ariz** (1. Marco de Casaveses, Porto; 2. Pêso da Régua, Porto, Portugal); **Aritz** (esp. **Áriz**, Iza, Iruña); **Aris** (Pontevedra, Galizia, hemen azentua *Á*-bokalaren gainean erortzen omen da, Nafarroan bezala, bestenaz baginuke **Aris* edo *Ariz*); **Ariz** (Ourense, Galizia); **Ariz** (Lugo, Galizia): gaur ezin du nehork seriozki sinetsi Nafarroako leku-izen historiko hori (*h*)*aritz*, “chêne, roble” euskal hitzetik etorri ahal izaita. Galizia eta Portugalekoak antroponimo germanikoak dira. Bi posibilitate Joseph Piel-en arabera: ALARICUS (kasu batean bederen, hau da Portugalekoan, ez da dudarik Erdi-Aroko formak kontutan hartzen baditugu, ik. Piel 1937: § 84, 35; Morlet 1971: 28) edo ANA- / ANNARIGUS (Morlet 1971: 35); ANA- / ANNA- elementu antroponimikoaz den bezenbategan, ik. antroponimo hauek: ANAHILDIS, ANAMODUS, etabar. Dakigularik euskarari albokoa ezin dela normalki bokaleen artean erori (aldiz portugesez eta galizieraz bai), Izako toponimoari dagokionean behartuak gara beraz ondoko bilakaera honen berreraikitza, zeina posible litekeen ere Portugalen eta Galizian: **uilla A(n)arigici* / *A(n)arici* > **Aariz* (Portugalen eta Galizian ere sudurkari interbokalikoak erortzen ohi dira) > *Ariz* > *Aritz* (euskaraz).

8. **Astariz** (Veral eta Otero de Rei-ko parropiak, Lugo, Galizia); **Astariz** (parropia, Castrelo de Miño, Ourense, Galizia); **Astaritz** edo **Dastarits** / **D'Astarits** / **Dastaritz** (Lapurdin euskal deitura ezaguna⁷, identifikatu ez dugun iragan denboretako euskal leku-izen edo etxe-izen historiko batek hartua dudarik batere gabe, Iglesias 2000: 27; 86); **Esteriz** (parropia, Vigo, Oia, Pontevedra); **Desteriz** (parropia, Ourense, Galizia); **Estriz** (Amarante, Porto; Fafe, Braga, Portugal); **Destriz** (Oliveira de Frades, Viseu, Portugal); **Villa Estrigo** (León, Espainia): izan ere, Portugal, Espainia eta Galiziako leku-izen horiek eta Euskal Herriko deitura zahar hori ongi dokumentatuak diren ASTHERICUS eta ASTORICUS direlako antroponimo germanikoetarik datozkigu (Iglesias 1998b: § 1, 4, Morlet 1971: 43; Piel 1937: §§ 315, 400; 80, 97). Oraino duda-mudetan ibiliko lirategentzat, hor ditugu *Astaric*, *Astarick*, *Astarich*, *Astric*, *Astri* eta *Astry* germaniar jatorrizko frantses deiturak (Morlet 1991: 52-53). Bestalde, litekeena da ere, bainan hori ia hipotetikoa da, nahiz-eta errealista dirudien, **Esteribar** (*Azteriuar*, 1192, Zangoza, Nafarroa) leku-izen nafartarrak, zeina betidanik “ezin esplikatu”-tzat ekartzen den, ESTR- < AUSTR (Morlet 1971: 47; Piel 1937: § 94; 39) elementu gotikoarekin zerbait ikustekorik izaita, zein Galizia eta Portugaleko toponimian inobreak agertzen baita Joseph Piel-en arabera: aipa ditzagun, besteak beste, **Esteiro** batzu (zeinak ez diren AESTUARIUM latinarekin nahaskatu behar), Erdi-Aroan *S. Johanne de Aster*, 1220, *Ester*, 1258 (Piel 1937: §§ 394, 395; 96), ikus ere, besteak beste, leku-izen hauek: **Estremonde** (Guimarães, Braga), **Estromil** (Vila Verde, Braga), **Estremil** (Lugo, A Koruña), **Estrumil** (Lugo, Ourense), **Astromil** (Paredes, Porto), etabar⁸.
9. **Auritz** (esp. **Auriz** / **Burguete**, Erroibar, Zangoza); **Aurizberri** (esp. **Espinal-Auzperri**, Erroibar); **Auriz** (“despoblado”, Uterga, Izarbeibar); **Auritz** (Angelun edo Baionako inguruetan kokatua zen Erdi-Aroko etxea, *Auritz*, 1395; ik. Orpustan 2000: 347); **Ouriz** (Lugo, Galizia): ez da dudarik batere, ez eta hurbiltzekorik ere, Lapurdi eta Nafarroako leku-izen historiko horiek oro, orai arte “ezin esplikatu”-tzat ekarriak zirenak, AURICUS delako antroponimo germanikotik datozela (Morlet 1971: 44), adibide argiagorik, dakigula, ezinezkoa delarik. Galiziakoaz den bezenbatean, AURICUS / AORICUS antroponimo germaniko horretarik beretik dator

⁷ Iglesias, 2000, p. 27: “Extrait du contrat de mariage D’entre michel morin heritier de la maison de cinquans du lieu de Biarrits, et marie Duvignau fille de la maison Dalacolats du lieu D’arbonne En datte du vingt Septieme du mois de Janvier 1744; Retenu par le no^c Soussigné [Planthion] (...) Constitution de rente de 7^{Livres} 10^{Sols} Pour m^c *Michel D’astarits* pretre docteur en theologie [de Saint-Pée-sur-Nivelle] Contre Joannes Duvignau m^c de la maison D’alacolats D’arbonne, ARBONA. D’ALACOLAT’SEN URTHARILAREN-LEHENEAN. 7 Libera 10 Sos”. Ik. ere Iglesias, 2000, p. 86: “Les miliciens de Biarritz, avec ceux d’Anglet et d’Arcangues, constituaient une compagnie du régiment du Labourd. La population était composée dans sa très grande majorité de laboureurs et de marins, ces derniers étant relativement nombreux. Les mœurs, écrit Joseph Laborde, “étaient paisibles”, mais en 1734 il est fait état d’une rixe au cours d’une assemblée capitulaire qui devait désigner *Jean Dastaritz* comme premier jurat de la paroisse”.

⁸ Hori litzateke, nere iduriko bederen, egun proposa daitezkeen hipotesia “errealista” eta logikoenetarik bat Nafarroan ditugun **Esteribar**, **Astráin** / **Azteráin** eta beharbada ere **Esterenzubi** eta **Esterengibel** direlako leku-izen zaharrendako, aipatu Iparraldeko azken kasu hauetan “*Ester* deritzan pertsona baten zubia” eta “*Ester* deritzan pertsona baten eremu edo etxaldearen gibeledoko partea” balizko erran-nahiak ginituelarik, oker ez banago.

- ere (Piel 1945: § 1027, 223-224), galizieran *au-* > *ou-* aldaketa, jakina denez, ohikoa delarik.
10. **Beire** (Olite / Erriberri, Nafarroa); **Beire** (1. Santo Tirso, Porto; 2. Feira, Aveiro; 3. Paredes, Porto, Portugal): Euskal Herriko leku-izen historiko hori “ezin esplikatzeko”-tzat ekarria da. Nolanahi ere, ez da, gure iduriko bederen, den mendreneko dudarik erraiterakoan Portugalekoak, zeinak germaniar jatorrizkoak diren (Piel 1937: § 117, 45), eta Nafarroakoa gauza ber-bera direla: **BERERIUS** (Morlet 1971: 52) > **uilla Bererii* > **Beeri* > *Beire*. Zer nahi den, Joseph Piel-ek, bere aldetik, proposatzen du ere ondoko azterketa hau Portugalekoentzat: ***BAIRUS** < **BEIRO** delako antroponimoak, zeina Erdi-Aroan dokumentatua den (Piel 1937: § 117, 45, XIII. mendean dokumentatutako forma, Portugal), ondoko bilakaera hau ere permitituko luke beti Piel-en arabera: **uilla Bairi* > **Baire* > *Beire*.
11. **Bera** (esp. **Vera de Bidasoa**, Bortziriak, Iruña); **Beraitz** (esp. **Beraiz**, Olabar, Iruña); **Vera** (Cabeceiras de Basto, Braga, Portugal; Erdi-Aroko formak: *Bera*, 968, patronomiko portugesak: *Beraci* 1005, *Beraz*, 1013, *Beras*, 1258, ik. Piel 1945: § 1389, 299); **Vera** (Vila Verde, Braga, Portugal); **Vera** (Ponte de Lima, Viana do Castelo); **Torre de Bera** (Coimbra, Portugal): Joseph Piel-en arabera Portugalekoak antroponimo germanikoak dira (ik. **Bera** delako hipokoristiko germanikoa, Morlet 1971: 53). Hala ere, ezin da segurtaimen osoz baieztatu hemen aipatzen ditugun kasu guzietan horrelakorik beti agertzen denik, nahiz-eta, gure iduriko, esplikazione hoberena dirudien. Zer nahi den, dudaz kanpo dago Nafarroako leku-izen horiek ez daukatela ezer ikustekorik euskararekin.
12. **Biarritz** (**Miarritze** euskara modernoan, Lapurdi, iragan denboretan **Beari(t)z** / **Bearri(t)z**: *Beariz*, 1150, 1170, *Bearriz*, 1150, *Beiarridz*, 1165, *Bearidz*, 1186, 1194, *Beiariid*, 1199, *Bearritz*, 1249, 1258, *Beiarridz*, *Beiarriz*, 1261, *Bearridz*, 1281, *Beyarridz*, 1311, 1335, *Beriz*, *Beritz*, *Berridz*, 1314, *Bearitz*, *Bearys*, 1344, *Bearritz*, 1499, *Bearitz*, *Bearritz*, 1511, *Bearitz*, 1559, *Saint Martin de Bearitz*, 1568, *Miariz*, *Mieritz*, XVII. mendean, *Biarits*, XVIII. mendean); **Bearritzegi** (IGN, Maya / Amaiur, 66-III, 1: 25.000, Nafarroa); **Santa María de Beariz** (Beariz, Ourense); **San Martín de Beariz** (San Amaro, Ourense); **Santa Magdalena de Baariz**, 1392 (Paradela, Lugo); **Viariz** (Baião, Porto, Portugal); **Viariz** (Vila Real, Portugal); **Viariz** (Corullón, León, Espainia): autoreak oro ados daude leku-izen “galaiko-portuges-leones” horiek antroponimo germanikoak direla erraiterakoan → **VIARICUS** / **WIARICUS** / **VIDIRICUS**, etabar. (ik. Iglesias 1998a: 281-288, 1998b: § 13, 8; Morlet 1971: 223; Piel 1945: § 1396, 301-302). Bestalde, orai arte ezezaguna zen *Bearritzegi* leku-izen tipiari dagokionean, zein Iparraldeko Jakes Casaubon-ek duela guti kausitua izan baita, litekeena da, batzutan gerta daitekeen dardarkariaren azkartze analogiko baten bitartez, zeina behin baino gehiagotan euskal toponimotan agertzen zaigun (Iglesias 1998a: 282; ik. forma zahar hauek: *UtztaRiz*, 1249 → *UstaRRins*, 1252, *UstaRRiz*, 1273, gaurregun *UstaRitz*), hau izaita: **Bear(r)iz* + *tegi*, “demeure de *Bear(r)iz*” ezen, mementoko, nik dakidan bederen, dauzkagun eta dazaguzkigun datu hauen ororen arabera, hori litzateke iduriz hipotesia hoberena.

13. **Enderitz** (esp. **Endériz**, Olaibar, Iruña, *Enderiz*, 1257, *Enderis*, 1274, *Hendríz*, 1280); **Eneritz** (esp. **Enériz**, Izarbeibar, Iruña, *Eneriz*, 1084); **Andariz** (A Koruña, *Anderici*, 989?; *casale de Anderiz*, X. mendean, ik. Sobrado-ko kartularia, Galizia): Nafarroako leku-izen hauek eta Galiziakoa biziki ongi dokumentatua den **ANDERICUS** / **ANTERICUS** / **ANDRICUS** delako antroponimo germanikotik datozkigu (Iglesias 1999: 144-145; Morlet 1971: 36; Boullón Agrelo 1994: 145). **Eneritz** izen-lekuari dagokionean, gertatutako bilakaera ondoko hau litzatekeelarik: **uilla Anderici* (ik. *Anderici*, Galizia) > *Anderiz* (Galizia) > *Enderiz* (ik. *and-* > *end-* aldaketa arrunta) > **Enneriz* (*-nd-* > *-nn-* > *-n-* bilakaeraren bitartez Nafarroan) > *Eneriz* > *Eneritz* (euskaraz: *-riz* > *-ritz*).
14. **Gasteiz** (esp. **Vitoria**, *Gastehiz*, 1025, *Gastez*, 1135 Irigoienen arabera, *Victoria, quae antea vocabatur Gasteiz*, 1181); **Gastes** (Parentis-en-Born kantonamendua, Landak, Gaskoina, Frantzia, *Gastris*, 1290, *Gastes*, 1299): hemen segurtamen bat badela erran daiteke, hau da, Gaskoiniakoa leku-izen germanikoa dela (Dauzat & Rostaing [1963], 1978: 312). Gai horietan aditua den komunitate zientifikoarentzat ez da horri buruz den mendreneko duda izpirik. Aldiz, Arabako leku-izen famatuari dagokionean, eta euskaltzale guziok ongi dakigun bezala, gaia biziki eztabaidatua izan da, baina aitortu behar dugu hemen gutiz-gehienetan bat baino gehiago etimologiaren mundu fantastiko eta liluragarrian hondatu zitzaigula. Bestela errana, “gatz”-arena, hau da, funtsgabeko etimologia zaharkitu horren kasua, ezin dezake nehorik serioski sinets. Halaber, gogora dezagun ere Gaskoinako Landetako toponimoak Arabakoarekin daukan begi-bistako antzekotasunaren “ez-aipatze”-ak, nahiz-eta urrundik izan zedin, ezinago arraro dirudiela. Dena den, Alfontso Irigoien, oxtion aipatu dudana balizko gatzoki bati lotutako funtsgabekeria horri oharturik, entseatu zen errealistagoa izanen litzatekeen beste aterabide baten hatxemaitera. Eta egia baldin bada autore honek proposatzen duen hipotesia “gatzaga”-rena baino askoz ere seriosagoa dela, hala eta guztiz ere, handiak diren nere duda-muda guziekin gelditzen naiz arrazoin ximple batengatik: dezadan berriz errepika Gaskoinako leku-izenaren izaite horrek, zein euskaltzaleen artean, oker ez banago, ez baita sekulan aipatua izan, badu bere munta, ezen ezinezkoa zaigu zinez nola edo hola pentsatzea Arabakoa eta Landetakoa hertsiki lotuak ez direla. Hala ere, eta bestalde, ez bada dudarik, Albert Dauzat-ek eta Charles Rostaing-ek dioskuten bezala, Gaskoiniakoa leku-izena germaniar jatorrizkoa dela, etimologiaren aldetik ikerlari hauek proposatzen dutena baino beste hipotesia hobeagorik badagoelakoan daukat. Alabainan bada, autore hauek iduriz ezagutzen ez zuten eta ezagutzen direnetarik zaharrena izan litekeen Erdi-Aroko forma bat, hastapenean jadanik aipatua izan dena, Jean Lesbats deritzan autore batek emaiten digu (Lesbats 1978: 53): *Gastris*, 1290. Izan ere, dokumentatua den forma horrek, hala nola ere bestalde azterketa linguistiko koherente eta errealista batek, eramaiten gaitu nahi-eta-ez, nere iduriko be deren, **GASTERICUS* delako antroponimo germaniko baten sumatzera bai Landetan bai Euskal Herrian, hau da: **uilla Gasterici* > **Gasteriz* > *Gastris* (Landak) / *Gastehiz* (Araba) > *Gasteiz* > *Gastez* (dokumentatua den azken forma hau, zeina Landetan agertzen denarekin konpara daitekeen, Araban desagertu zen Alfontso Irigoienek orroitarazten duen bezala). Hi-

potesia hau errealista eta koherentea da, bi arrazoin xinplerengatik: *a)* sistema onomastiko orokor baten parean gaude hala nola argi eta garbi frogatzen duten artikulua honetan aipatzen ari naizen beste adibide guzietan — zergatik ez luke balio orduan *Gaste(h)iz* delako leku-izenarentzat hemen aipatzen diren beste toponimo gehientzat balio lezakeenak?; *b)* nahiz-eta *GASTERICUS < *GAS(T)-REIKS delako antroponimoa ez den Morlet-en obran agertzen, aldiz, GADERICUS aldaera bat ongi dokumentatua da (Morlet 1971: 97), zeinek ere bigarren maileko beste aldaera bat ezagutzen baitu, hau da, dokumentatutako GAS- (< GAD-) aldaera bat (Morlet 1971: 97), azken honek GADERICUS > *GASE-RICUS > *GAS(T)E-RICUS (ik. *Gastehiz*, 1025 eta *Gastris*, 1290) berreraikitze teorioa baimen lezakeelarik. Zer nahi den, Morlet-ek, beste obra mardul batean (Morlet 1991: 447), *Gastris* frantses deitura aipatzen du, zeina, autore honen arabera, GASTRIC pertsona-izen germaniko batetik datorren (ik. *Gastris* Erdi-Aroko forma eta aipatutako *GASTERICUS). Teoriaren aldetik bederen, dakigula, ez da hemen gaitzigarri izango litzatekeen deus. Beraz, nahiz-eta Alfontso Irigoienek hipotesia kontuan hartzekoa den, gure iduriko, hemen proposatzen denak, hala ere, logikoagoa iduri du, besteak beste, ongi ezaguna den sistema onomastiko historiko eta koherente batean sartzen baita.

15. **Heraitze** (fr. *Hérauritz*, *Harauriz*, 1233, Uztaritzeko auzotegi historikoa, bai eta ere Heletakoa: **Heraitze**, fr. *Hérorits*, Lapurdi, ik. **Ustariz / Ustaritz**): badaiteke leku-izen honek, zeinaren esplikatzea betidanik biziki zaila izan den, ARIARICUS delako antroponimo germanikoarekin (errege gotiko baten izena, ik. Piel 1937: § 19; 23) zerikusirik ukan ahal izaitzea. Zer nahi den, eta gure iduriko bederen, badauka antzekotasun handi bat, formaren aldetik behintzat, hemen aipatzen ari diren leku-izen germanikoekin, batipat Portugal eta Galiziakoekin.
16. **Hondritz** edo **Ondrits de Haut**; **Ondrits de Bas** (Angeluko etxe-izen historikoa, Lapurdi: *Underitz*, 1149, *Honderiz*, 1198, *Onderidz*, 1255); **Ondreville** (Loiret, Frantzia, *medietas Undrevillae*, 1022); **Ondres** (Landak, Gaskoina, Frantzia, *Ondres*, 1289, *Ontres*, 1299): behin baino gehiagotan “ezin esplikatzeko”-tzat ekarria izan den leku-izen lapurtarra dokumentatuak diren UNDERICH (Dauzat & Rostaing [1963], 1978: 508) edo HUNRICUS direlako antroponimo germanikoetarik dator (ik. ere Morlet 1971: 141); aipatutako bigarren kasu hau kontutan hartzekotan, adituek ongi dazaguten *-nr-* > *-ndr-* bilakaera ginuelarik (ik. *Henrique* > *Hendrike*, etabar.). Zer nahi den, Albert Dauzat eta Charles Rostaing ikerlari ospatsuen arabera, Loiret-eko leku-izenaren “germanikotasun”-ari dagokionean, ez da den gutieneko dudarik. Landetakoaz den bezenbetean, zeina ez den orai arte, dakigula bederen, esplikatua izan, nahiz-eta zenbait autorek toponimo honek (*h*)*ondar*, “arena, sable” euskal hitzarekin zerikusirik beharbada bazaukakeela pentsatu zuten, aipatutako beste toponimoen jatorri ber-bera daukala iduritzen zaigu. Hori litzateke, gure iduriko bederen, hipotesia hoberena eta logikoena, edo nahiago bada, errealistena.
17. **Izturitze** (fr. *Isturits*, *Isturitz*, 1300, *Izturiz*, 1309, Nafarroa Beherea): Jean-Baptiste Orpustanek (1990: § 103, 88) aitortzen du Iparraldeko leku-izen honen aztertzea biziki zaila dela, hau da bixtan da, euskararen birtatez atsolutuki esplikatu nahi izaitzekotan. Aldiz, nola edo hala onartzen

- bada -RICUS elementu gotikoaz bukatzen den leku-izen bat izan daitekeela, orduan antroponimo germaniko bat izanen da, edo teorian bederen izan liteke. Zer nahi den, Marie-Thérèse Morlet-ek AGIS- elementu gotiko bat aipatzen du, zeinek aldaera fonetiko batzu ezagutzen baititu: AGES- / AIS- / EIS- eta AIST- (ik. AISTULFUS < AIST-ULFUS, Morlet 1971: 26). Bestalde, Jean-Baptiste Orpustanek onartzen du, nahiz-eta arrazoin diferententengatik izan, dokumentatua den hastapeneko *ist-* segmentua zaharra goa izango litzatekeen beste baten laburtze bat izan litekeela, hau da: **aizt-* edo **aist* > *ist*. Hori ikusita, esplikatze errealista bat, nahiz-eta egia erran erabat hipotetikoak izan, proposatzen ahalko ginuke **AIST(E)-RICUS* / **AIST(O)-RICUS* delako balizko antroponimo germaniko baten bitartez. Zer nahi den, nik dakidan bederen, antroponimo hori ez da orai arte dokumentatua (bainan horrek ez du erran nahi horren izaitea ezinezkoa denik), osatzen duten bi elementu onomastikoak ongi dokumentatuak izan arren. Hau liteke beraz proposa daitezkeen hipotesietarik bat: **uilla Aistorici* > **Istoriz* > *Isturi(t)z*.
18. **Munarriz** (esp. **Munárriz**, Goñerri edo Goñibar, Lizarra / Estella, Nafarroa, *Amunariz*, *Amunarriz*, 1280, 1350, *Munariz*, *Munarriz*, 1235, *Amunarrizbidea*, 1698); **Munarrizketa** (esp. **Amunarrizqueta**, Orbaibar / Valdorba, Erriberri / Olite, Nafarroa, *Monarisgutiam*, 1172, *Munarizqueta*, 1268): ez dezake nehorik seriozki sinets “ezin esplikatuzko”-tzat ekartzen den Nafarroako leku-izen horiek *amona*, “abuela, grand-mère” euskal hitzarekin zerikusirik ukan ahal izaitea. Orbaibar eta Goñerriko leku-izen horiek AMMUNA / AMUNNA delako germaniar antroponimo femenino batetik datozkigu (Caro Baroja 1945: 160; Morlet 1971: 33; ik. ere AMMUNDUS, AMUNDUS eta AMUNNUS antroponimo germanikoak, Morlet 1971: 33). Bigarren elementuaz den bezenbatean, -RICUS delakoa izango da: **AMMUNDA* (hau da AM- + MUNDA, ik. AMUNDUS, Morlet 1971: 33) > AM(M)UN(N)A + -RICUS > **uilla Amundarici* > **Amunnarici* > *Amunariz*. Halaber, Portugalen **Amonde** (Viana do Castelo) deritzan herrixka bat kausitzen dugu: AMMUNDUS > **uilla Amondi* > *Amonde*. Bestalde, Galizian, bai eta Lapurdin ere, **Mondariz** / **Mondri(t)z** / **Mundrís** batzu baditugu (ik. hurrengo artikulutxo § 19). Alabainan bada, posible liteke aipatutako galiziar leku-izen hauek eta Nafarroakoak gauza bera izan litezen, nahiz-eta bilakaera fonetiko diferente baten aurrean egon: **AM(M)UNDA* + -RICUS > [A]MUND(A)-RICUS (Galizian, hastapeneko bokalearen erortetaren bitartez) > AMUNNA- + -RICUS (Nafarroan ezagutua den *-nd-* > *-nn-* > *-n-* aldaketaren bitartez). Zer nahi den, Galiziakoentzat, bai eta Lapurdikoarentzat ere, bada bigarren posibilitate bat ongi dokumentatua den beste germaniar antroponimo baten bitartez (MUNDRICUS, ik. § 19).
19. **Mondritz** (XVIII. mendeko etxe-izena, Angelu, Lapurdi); **Mondriz** (parroquia, Lugo, Galizia); **Mundrís** (A Koruña, Galizia); **Mondariz** (Pontevedra, Galizia); **Santa Eulalia de Mondariz** (parroquia, Pontevedra, Galizia); **Mondáriz** (Ourense, Galizia, hemen leku-izen galiziar honen azentua azkenaurreko silaban erortzen omen da, ohiz-kanpokoa dena); **Mondicourt** (Pas-de-Calais, Frantzia, *Mondricort*, 1170); **Mondrecourt** (Meuse, Frantzia, *Mundrico curtis*, 1041); **Mondreville** (Seine-et-Marne, Frantzia, *Mondrevilla*, 1235): bai Lapurdikoa bai Galiziakoak eta baita ere Frantziakoak oro, MONTA- / MUNDRICUS delako antroponimo germaniko

- batetik datoz (Morlet 1971: 170; Piel 1937: § 982, 213; Dauzat & Rostaing [1963], 1978: 464). Posible liteke ere beste posibilitate izan ledin. Bi talde baginituzke, hau da: 1.- **Mondritz, Mondriz, Mundrís, Mondicourt, Mondrecourt, Mondreville** direlako leku-izenak leudekeeneko multzoa (< MUNDRICUS); 2. **Mondariz, Munarritz** leku-izenen multzoa (< AMUNDA + -RICUS, ik. § 18). Nolanahi ere, bada segurtamen bat: hemen aipatzen ari diren leku-izen horiek oro antroponimo germanikoak dira.
20. **Oderitz** (esp. **Odériz**, Larraun, Iruña); **Villaodríz** edo **Villaodrid** (*uilla odorici*, 1037, Lugo, Galizia): Galizia eta Nafarroako leku-izen hauek dokumentatua den ODO- / ODERICUS delako antroponimo germaniko batetik datoz (Iglesias 1999: 144, Morlet 1971: 44).
21. **Oritz** (esp. **Óriz**, Elortzibar, Zangoza); **Oriz** (Lugo, Galizia); **Oriz** (Villa Nova de Famalicão, Braga, Portugal); **Oriz** (Vila Verde, Braga, Portugal): hemen ez da den mendrenekko dudarik. Nafarroako leku-izena eta “galai-ko-portuges”-ak dokumentatua den ORICUS delako antroponimo germaniko batetik datozkigu (Morlet 1971: 44).
22. **Uritz** (esp. **Úriz**, Artzibar, Zangoza); **Uriz** (Lugo, Galizia): hemen bada segurtamen bat, hau da, Galiziakoa antroponimo germanikoa dela (gainera ez da ahantzi behar Uri(t)z “euskal deitura” bat dela, bainan baita ere “deitura galiziarra”; ik. **Argote** delakoaren kasua). Bestetik, ez badugu onartzen bai bata eta bai bestea azken finean gauza bera baizik ez direla, orduan Euskal Herrikoa ezin esplikatzeko da. Etimologiaren aldetik, Lugokoari dagokionean eta beraz segurki Nafarroakoari ere, posibilitate bat baizik ez da: AUDERICUS > AURICUS aldaera > ORICUS aldaera (Morlet 1971: 44; ik. **Auriz**), edo nahiago bada xehe-xeheki: **uilla Orici* > *Oriz* > *Uritz* eta Euskal Herrian *Úriz* (erdaraz) > *Uritz* (euskaraz).
23. **Ustariz** (Otero de Rei, Lugo); **Ustaritz** (**Uztaritze** euskara modernoan, Lapurdi: *Eustaridz*, 1304; *molendini Ustarici*, 1311; *Oustaris*, 1320; *Eustaritz*, XIV. mendean); **Osteritz** (esp. **Ostériz**, *Ostariz*, 1280, Esteribar, Zangoza, Nafarroa); **Ustaize** (esp. **Ustés**, Nabaskoze, Zangoza, Nafarroa): hemen, jadanik errana izan den bezala, bada segurtamen bat, hau da, Galiziakoa antroponimo germaniko bat da: Marie-Thérèse Morlet-en arabera dokumentatua den AUSTERICUS (eta bere aldaera den OSTERICUS) delako antroponimo germanikotik ateraia (cf. Iglesias 1998b § 45, 1999: § 50, 144-145, 2000:). Euskal Herrikoak betidanik “ezin esplikatzeko”-ak izanki, litekeena da gauza bera, hau da, izen germanikoak izaittea, ezen ez dirudi hipotesia hobeagorik denik. Hor ditugu bestalde *Oustry*, *Oustri* eta *Oustric* (Okzitaniako forma) frantses deiturak (ik. *Oustaris* aipatutako forma lapurtarra, 1320), zeinak AUSTRIC antroponimo germanikotik datozen (Morlet 1991: 745).

Bukatzeko, dugun errepika hemen zenbait adibide baizik ez ditugula mentoko eman. Bainan behar dugu bide beretik jarraitu, bai eta ere ikerketa berri hauek oro sakondu eta ahalik eta hobekiena landu. Orduan, iragan denboretako mota guzietako fantesia guzietarik behin-betirako urrundurik, bide berri eta errealista batzu, “egia”-tik hurbilxagoak izanen direnak dudarik batere gabe, gure aintzinean zabalduko zaizkigu bai gure onerako, garen euskaltzale guzientzat, bai Euskal Herriaren onerako.

BIBLIOGRAFIA

- ALTADILL, J., 1914, *Geografía General del Reino de Navarra*, 2 vol.
- BOUHIER, A., 1979, *La Galice. essai géographique d'analyse et d'interprétation d'un vieux complexe agraire*, 2 vol., La Roche-sur-Yon.
- BOULLÓN AGRELO, A. I., 1994, *Contribución ó estudio da antroponimia medieval galega (séculos VIII-XIII)*, thèse doctorale inédite, Université de Saint-Jacques de Compostelle, exemplaire microfilmé, Santiago de Compostela, ale mikrofilmataua.
- DAUZAT, A. et ROSTAING, Ch., 1989, *Dictionnaire étymologique des noms de lieux en France*, Paris, nouvelle édition.
- DÍEZ MELCÓN, G., 1957, *Apellidos castellano-leoneses (siglos IX-XIII, ambos inclusive)*, Université de Grenade.
- GGRG = *Geografía General del Reino de Galicia*, 1980, 13 vol., sous la direction de F. Carreras y Candi, Ediciones Gallegas, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, La Corogne-Bilbao.
- GIFFORD, J., "Topónimos gallegos y topónimos navarros", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 1955, XI, pp. 227-231.
- GOYHENECHÉ, E., 1966, *Onomastique du Nord du Pays Basque au Moyen Age. XI-XV siècles*, thèse de doctorat dactylographiée, Bordeaux.
- IGLESIAS, H., 1998a, "Le toponyme Biarritz", *FLV*, n° 78, pp. 281-288.
- IGLESIAS, H., 1998b, "Sur quelques similitudes toponymiques galaïco-basques et le problème que posent certaines d'entre elles", *Lapurdum III*, 1-29.
- IGLESIAS, H., 1999, "Affinités toponymiques cantabro-pyrénéennes et énigmes historiques", *Lapurdum IV*, 123-166.
- IRIGOYEN [IRIGOIEN], A., 1981, *Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antroponímico*, Bilbao.
- LARREA, J.-J., 1998, *La Navarre du IV^e au XI^e siècle. peuplement et société*, Ed. De Broeck Université, Paris, Bruxelles.
- LESBATS, J., 1978, *Toponymie des Landes*, Aire-sur-l'Adour.
- MADOZ, P., 1845-1850, *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar*, 16 vol., Madrid.
- MICHELENA, L., 1989, *Apellidos Vascos*, 4^e éd., Txertoa, Donostia.
- MORALEJO LASSO, A., 1977, *Toponimia gallega y leonesa*, Ed. Pico Sacro, Santiago de Compostela.
- MORLET, M.-Th., 1972, *Les noms de personne sur le territoire de l'ancienne Gaule du VI^e au XI^e siècle. I.- Les noms issus du germanique continental et les créations gallo-germaniques. II.- Les noms latins ou transmis par le latin*, Paris, CNRS.
- MORLET, M.-Th., 1991, *Dictionnaire étymologique des noms de famille*, Perrin, Paris.
- OLANO SILVA, V., "Toponimia gallega", *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, I, 1945, pp. 653-666; V, 1949, pp. 626-662; X, pp. 190-226, 1954.
- ORPUSTAN, J.-B., 1990, *Toponymie basque*, Presses Universitaires de Bordeaux.
- ORPUSTAN, J.-B., 2000, *Les noms des maisons médiévales en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Izpegi.
- PIEL, J. -M., 1937-1945, *Os nomes germánicos na toponimia portuguesa*, I. *Adaes-Novegildo*, Lisboa, 1937. II. *Oldroes-Zendo*, Lisboa, 1945.
- SALABERRI, P., 1994, *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez. Onomasticon Vasconiae 11*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- SÁNCHEZ GONZÁLEZ DE HERRERO, 1985, *El habla y la toponimia de Lapuebla de Arganzón y el Condado de Treviño*, Ed. Diputación Foral de Álava.

LABURPENEA

Autoreak lan-hipotesia berri bat proposatzen du, zeinak esplika litzakeen Euskal Herriko toponimo historiko batzu orai arte "ezin esplikatu"tzat ekartzen zirenak, eta hori mendebaldeko Europako lurralde batzuetan ongi dokumentatutak diren germaniar antroponimo batzuei esker.

RESUMEN

El autor propone una nueva hipótesis de trabajo, gracias a la cual se podría explicar una serie de topónimos históricos vascos que se consideraban como

inexplicables a partir del euskera o del latín. Para ello, se vale de unos antropónimos germánicos que están bien documentados en una serie de territorios de la Europa Occidental.

RÉSUMÉ

L'auteur propose, en ce qui la toponymie historique du Pays Basque, une nouvelle piste de recherche, inédite et inattendue pouvant expliquer de façon réaliste et cohérente plusieurs toponymes historiques basques à partir d'anthroponymes d'origine germanique très bien attestés dans d'autres régions d'Europe Occidentale.

ABSTRACT

The author proposes a new working hypothesis, thanks to which a series of historical Basque place names might be explained that were hitherto considered unexplainable. To this end, he takes advantage of some Germanic anthroponyms that have been well documented in a series of territories in Western Europe.